



EN TOL SARMIENTO

ETS edo En Tol Sarmiento taldeak (Iekora, Araba, 2005) urrats erraldoia eman du aurrera. ETS taldearen bosgarren diskoaren izenburua bera printzipioen adierazpena da: Aukera berriak. Taldeak garden azalduko digu letretan bizitzan agertzen diren ate zahar eta gazteetan edo norabide askotariko bidegurutzeeen aurrean aukera berriak sorraziko zaizkigula eta ditugula, hemen eta oraingo abagunea baliatu eta profitatu hamaika koloreek dakartzaten sentipen multzoekin gozatzeko, bizitzarekin bat egiteko muturreraino. Ez da gonbidapen inpersonala, gu indartsu baten bizipozarekin gertaerei musu eman eta jatortasunetik besarkatu aldameneko pozgarritasunak. Aukera berriei zin egitean datza bizitza, eta etenik gabe. Pop, rock, ska, reggae, runba zertzeladak, rock-folk ukituak eta balada doinuak alaitasunera bideratuko gaituzte zirrikitu guztietatik. ETS taldearen soinua berri egin da eta are erakartzaileagoa gertatuko zaigu. Has dadila aukeren dantza!

En Tol Sarmiento taldearen "Aukera berriak" diskoaren musika eta letrak Iñigo Etxezarretarenak dira. Ekoizpena eta konponketak Pello Reparazek egin ditu. Grabaketa eta nahasketa Paxkal Etxeparek egin ditu 2019ko irailean eta masterizazioa Simon Capony-rena da. Jon Maia (Beste behin; letra). Ander Valverde (Logela honetan; ahotsak eta hitzak), Gorka Pastor (Heldu da garaia; pianoa), Claudia Osés eta Ivan Carmona (Suakai) "Heldu da garaia" abestiko hariak (Drum Groove Studioan grabatu ditu losu Ervitik), Dani de Ayala (Isiltasunaren indarra; hitzak), Zuriñe Gil (hitzak eta zuzenketak). Argazkiak Ibai Acevedok egin ditu. Diseinu grafikoa eta maketazioa Eburne Balenciagarenak dira.

BESTE BEHIN

Kultura, identitate, maitasuna eta bizi nahiaren transmisioa adierazi nahi du. Nola kantuz kantu, ahoz aho, belaunaldiz belaunaldi pasatzen den kultura bat, sentimendu bat eta kode desberdinetan aurrera egiten duen. Horregatik egiten dio erreferentzia "Lau teilatu" abestiari, aurreko belaunaldietatik datorkigun kantu mitikoa beste behin agertuz, oraingoan kantu berri honetan, eta gure aurrekoek hasitako bidaiari gure musikarekin segida emanez. Abesti zuzena, freskoa, melodia itsaskorrez beteta.

LOGELA HONETAN

Norberak behar dituen leku zein mementoei konposatutako abesti lasaia da. Bizitza erritmo azkarren inguruan hausnartzen du eta norbanakoaren espazioaren eskubidea defendatzen du. Balioa galtzen ari diren kontzeptuak dira pribatutasuna zein intimitatea eta horregatik omenaldi hau. Reggae estiloa nagusitzen da, gaiak eskatzen duen lasaitasuna kontuan hartuz.

AUKERA BERRIAK

Proiektu osoarekin transmititu nahi den kontzeptua bikain laburbiltzen du. Abestiak bizitza modu berriak marraztera eta aukera berriak sortzera gonbidatzen gaitu, bide berrietan murgiltzera, alegia. Kolore hitza erabiliko da bizitzan marraztu daitezken aukera berriez hitz egiteko. Erritmo aldaketekin jolasten du eta runba zein rocka uztartzen dituen proposamen alaia da.

ITXURA

Egungo bizitzan itxurak daukan paperari buruzko hausnarketa kritikoa egiten du. Alde batetik, gizartean onartua izateko -eta ia behartuta- erakuten dugun maskarari buruz hitz egiten du. Bestetik, kanpoko itxura hori, sare sozialetako profilak elikatzeke orduan onartzen ditugun arauekin erlazionatzen du. Zuzena, rock erritmoa nagusi eta ereserki batetik gertu dauden melodiak ditu. Azkenik, norberaren itxuraz arduratuegi egoteak sortzen duen tentsioa ere maila musikalerara eraman da.



GELDITU DENBORA

Erabakiak hartu baino lehen sortzen diren ziurgabetasun uneak azaltzen ditu. Diskoaren kontzeptu orokorretik gertu dago, izan ere, bidegurutzek, erabakiak, aldaketak edota haize berriak bezalako ideiak aipatzen dira. Hala ere, denbora gelditzeko gonbidapena azaltzen da, erabaki horiei modu argi batean aurre egiteko. Erlojuen orratzen soinua agertzeaz gain, denbora gelditzearen efektua ere islatzen da.

ZERURA BEGIRA

Proposamen alaienak, Euskal Herriko egun eguzkitsu batean gertatutako istorio bat kontatzen du ironia kutsu batekin. Abestiak lagun talde baten plana deskribatzen du. Egun eta gauaren segundo guztiak bizitzeko prest. Energia positiboz betetako udako abesti dantzagarria.

ISILTASUNAREN INDARRA

Iekoran (Araba) Gerra Zibilean gertatutako historia baten kontakizuna da. Garai hartako alkatteak tropa frankisten aurrean, herriko hainbat bizilagun ez salatzea erabaki zuen bere bizitza galtzearen truke. Horregatik, abestiak isiltasun kontzeptuari garrantzi handia emango dio, herriko hainbat familia salbatu zituelako. Tonalitate minorreko rock-folk doinuak ditu. Ideia originala eta letraren zati garrantzitsu bat Dani de Ayalarena da.

HELDU DA GARAIA

Amodiozko balada hunkigarria. Norberaren bizitzan dagoen pertsona berezi horrentzat sortutakoa, guregatik egiten duen guztia eskertzeko asmoz. Ahots melodia goxoek piano eta harien konponketekin bat egiten dute samurtasun berezia lortuz.

E.T.S. (En Tol Sarmiento):

Iñigo Etxezarreta: ahotsak, gitarrak
Ruben Campinun: baxua
Floren Diaz: bateria
Ruben Terreros: tronpeta
Javier Lucas: tronboia

ritxi aizpuru + en tol sarmiento
(2019ko azaroaren 27a)



Tel. 659 975 820 - 618 072 026 / 221 P.K. 48100 Mungia (Bizkaia)
www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus

